zer berri?

LEZOKO UDAL ALDIZKARIA *REVISTA MUNICIPAL DE LEZO*

Lezoko Unibertsitateko Udala

# LEZON

02'

EKAINA **2017** *JUNIO*



# Aurrekontuetan jasotako proiektuak erritmo onean

## *La mayoría de los proyectos recogidos en los presupuestos ya están en marcha*


Jesus Mari Martiarena
Lezoko alkatea

## Elkarlanaren bidetik, aurrera eginez

Hainbatetan beharrezkoa izaten da proiektuak eta egitasmoak aurrera ateratzeko elkarlanean jardutea.

Horretarako, baina, argi izan behar dugu non dugun helmuga, etorkizunean zein herri izan nahi dugun eta herritarrei zein herri eskaini nahi diegun.

Herritarrei Lezo hobe bat eskaintzeko gaurtik landu behar ditugu etorkizuneko oinarri eta proiektuak eta horiek, ezinbestean, elkarlanean garatu behar ditugu. Elkarlanean, gainerako erakundeekin, eskualdeko garapen agentziarekin, eta noski, herritarrekin, proiektu eta erabaki guztiek zuen behar eta nahiei erantzutea izan behar dutelako helburu.

Pertsonak zarete gure jardunaren oinarria eta hain zuzen, pertsonei egokitutako herri atseginagoa, seguruagoa eta irisgarriagoa eraikitzeari eman diogu lehentasuna. Helburu horren baitan eta aurretik aipatutako elkarlanaren haritik, Foru Aldundiaren laguntzarekin Altamirako biribilguneko lanak eraman ditugu aurrera eta urte amaitu aurretik hasiera emango zaie bidegorria eraikitzeko lanei.

Beraz, elkarlana ezinbestekoa da guretzat aurrera egiteko, proiektu berriak garatzeko eta herritarren beharrei erantzuteko. Horrexegatik elkarlanerako borondatea eta konpromisoa gure lanaren oinarrizko printzipio gisa hartu ditugu, gure aburuz, horixe baita herriak behar duena eta herritarrek eskatzen digutena: elkarlanean aritzea.

## *Avanzando por las vías de la colaboración*

*En ocasiones resulta imprescindible trabajar en colaboración y de forma coordinada con diversos agentes e instituciones para sacar adelante proyectos e iniciativas.*

*Para ello, debemos tener claros nuestros objetivos y saber qué Lezo queremos ofrecer en el futuro a la ciudadanía.*

*Para lograr ofrecer un Lezo mejor a la población debemos trabajar desde hoy las bases y los proyectos para el futuro y lo debemos hacer en colaboración con el resto de instituciones, la Agencia de Desarrollo Comarcal, y como no, junto a la ciudadanía, ya que cada decisión adoptada o cada proyecto trabajado debe responder a las necesidades y peticiones de la población.*

*Las personas sois el eje central de nuestra labor y es por ello que construir un municipio adecuado a las personas, más agradable, seguro y accesible es nuestra principal prioridad. Con ese mismo objetivo y en colaboración con la Diputación Foral de Gipuzkoa, se han llevado a cabo las obras de Altamira y antes de que acabe el año darán comienzo las obras del bidegorri.*

*Por tanto, para nosotros la colaboración es totalmente necesaria para sacar adelante nuevos proyectos que respondan a las necesidades de la población. Por ello, siempre hemos mostrado voluntad y compromiso para trabajar de forma coordinada y conjunta, porque a nuestro parecer, es justamente eso lo que nos exige la ciudadanía y necesita Lezo.*

## Polentzarreneko haur jolastokia egokitu da

*Mejoras en Polentzarrene*







## AMAITU DITUZTE ALTAMIRAKO BIRIBULGUNEKO OBRAK

Eremuko segurtasun arazoei behin betiko irtenbidea emateko helburuarekin, Lezoko Udalak oinezko eta txirrinduentzako pasabide berria egiteko proiektua sustatu zuen joan den urtean eta dagoeneko obrak amaituak daude. Lanak aurrera eramateko Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza izan du Udalak, Aldundiak lanen %85a ordaindu baitu.

Obrak bi fasetan gauzatu dira, lehengoan, egungo espaloia moldatu eta zabaldu da, oztopo arkitektokikoak gainditu eta irisgarritasuna hobetzeko. Bigarren fasean, pasabide berria eraiki da herritarrei bide seguruagoa eta irisgarriagoa eskaintzeko.



## *Mejorar la seguridad y la accesibilidad, principales objetivos*

*Dar una solución definitiva a este punto negro que tantos accidentes ha generado ha sido prioritario para el actual equipo de gobierno.*



*A pesar de que a principios del 2015 se llevaron a cabo varias actuaciones para mejorar la señalización e iluminación de la zona con el objeto de mejorar la peligrosidad de este punto negro, el actual equipo de gobierno, en respuesta a las peticiones de la ciudadanía y en especial de los vecinos de Altamira, consideró necesaria una actuación de mayor envergadura que diera una solución definitiva al problema.*

*Es por ello que, tras mantener varias reuniones con la Diputación Foral de Gipuzkoa y lograr su compromiso, el Ayuntamiento redactó el proyecto a lo largo del 2016 y las obras comenzaron a finales de año. Tras varios meses, ya han concluido las obras en las que se ha modificado y ampliado la acera existente para hacerla más accesible y se ha construido una pasarela totalmente nueva, mejorando la seguridad de las personas.*

### DATUAK *DATOS*

- **2015: argiztapen eta seinaletiko hobetzeko lanak** *Mejoras en la iluminación y señalización*
- **2016: Proiektuaren idazketa** *Redacción del proyecto por parte del Ayuntamiento*
- **2016: obren hasiera urte amaieran** *Comienzo de las obras a finales de año*
- **2017: obren amaiera** *Fin de las obras*
- **Kostua eta finantzeketa** *Coste y financiación*: **306.655€**
  **%85 Aldundia** *Diputación* **- %15 Udala** *Ayuntamiento*

## *SESIONES ESPECIALES DE TIPI-TOPA*



Con el objetivo de impulsar relaciones intergeneracionales, las niñas y los niños de la Herri Eskola han participado en la iniciativa, compartiendo con las personas mayores los temas tratados en clase.

## INDARKERIAREN PREBENTZIOARI BURUZKO SAIOA

Emakume eta haurrak ahalduntzeko eta indarkeria kasuei nola aurre egin azaltzeko, defentsa pertsonaleko ikastaroak eskaini ziren Bekoerrota kiroldegian.

## *BUENA ACOGIDA DEL SERVICIO DE ASESORAMIENTO DEPORTIVO*

Dentro de la estrategia MuittuLezo el Ayuntamiento puso en marcha un nuevo servicio de asesoramiento deportivo por el cual ya han pasado más de 24 personas. Este servicio gratuito está dirigido a toda la ciudadanía, en especial a aquellas personas que llevan una vida sedentaria y quieren adquirir hábitos saludables. Para más información se puede acudir a la oficina ubicada en Aiton Borda.




## KORRIKA JENDETSUA LEZON

Euskararen aldeko apustuan eta euskara sustatzeko helburuarekin, Udalak, kilometroa erosi eta udal ordezkariek festan parte hartu zuten. Jendetza izugarria bildu zen kaleetan, haur, gazte, heldu eta adineko pertsonak, guztiak euskararen alde egiteko.




## *CONVENIO DE COLABORACIÓN CON LA DIPUTACIÓN PARA LA CONSTRUCCIÓN DEL BIDEGORRI*



Este año se comenzará a construir el tramo 3 del paseo peatonal y ciclista que unirá Lezo y Donibane. Este tercer tramo es importante para Lezo y la población lezoarra ya que hoy día los ciclistas y los peatones deben circular por la carretera. Por tanto, esta obra conllevará una mejora considerable en la seguridad y en el bienestar de la población. La Diputación Foral se ha comprometido a financiar cada año este proyecto y en base al convenio firmado la Diputación sufragará el 85% del gasto de la obra del tramo 3 que se construirá este año 2017.

## HOBEKUNTZAK LIBURUTEGIKO BILTEGIAN

Bertan 4 eta 7 urte bitarteko haurrei zuzendutako ipuin kontaketak saioak egiten dira udazkenean. Haurrei eremu egoki, atsegin eta goxoagoa eskaintzeko helburuarekin gauzatu ditu Udalak hobekuntza lanak; zehazki, zoru berria ezarri da,

paretak eta apalak apaindu dira eta argiztapena hobetu da.

## *EN MARCHA EL PORTAL DE TRANSPARENCIA*

Con el objeto de seguir fomentando la cultura de la transparencia en la gestión, el Ayuntamiento ha habilitado un portal de transparencia en la web municipal para acercar la labor y la información municipal  a la ciudadanía.

## JAI PAREKIDEEN ALDE




Jai parekideak sustatzeko helburuarekin Udalak pegatina eta kartelak zabaldu zituen herrian zehar eta tabernariei kanpainaren berri eman zieten. Zoritxarrez,jarrera sexistak izan ziren jaietan. Horregatik, Udalak, jai parekideen alde eta emakumeenganako jazarpenaren aurka lanean jarraitzeko konpromisoa berretsi du. Era berean, eskualdeko udalerriek jai parekideen aldeko diagnosia jarri dute martxan.

## *EL PLENO CONDENA LAS PINTADAS*




Con los votos a favor de EAJ-PNV y PSE-EE y los votos en contra de EH BILDU quedó aprobada la moción para condenar las pintadas  y el vertido de basura realizados en la entrada del Ayuntamiento. El Ayuntamiento insta a la ciudadanía a realizar sus reivindicaciones por cauces democráticos en beneficio de la convivencia entiendo que este tipo de acciones no tienen cabida en la sociedad actual. Por ello, desde el Ayuntamiento apuestan por el respecto a favor de la convivencia.

## ERRENTA AITORPENA EUSKARAZ EGITEKO KANPAINA




Aurten lehen aldiz, Errenta Aitorpena euskaraz egiteko kanpaina abiarazi du Lezoko Udalak joan den urteko emaitzak eta kopuruak hobetzea lortzeko eta bereziki, euskararen erabilerari bultzada eta indarra emateko bizitzako esparru guztietan, baita Errenta Aitorpenean ere.

## *LEZO, CONTRA LA HOMOFOBIA Y LA TRANSFOBIA*

Al hilo del día Internacional contra la Homofobia y la Transfobia el Ayuntamiento colocó una pequeña banderola en el balcón y se organizaron diversas actividades con el objeto de promover la reflexión  sobre la transexualidad.

## 206 HAUR AURTENGO UDALEKUETAN




Izena eman duten haur guztien parte hartzea bermatu du Udalak eta beraz, hasiera batean 180 plaza bazeuden ere, izena eman duten 206 haurrek parte hartuko dute aurtengo udalekuetan. Era berean, aurten, gurasoen eskariei erantzunez, 10etik 12ra luzatu da haurren adina.

# AURREKONTU PROIEKTUAN JASOTAKO PROIEKTU GEHIENAK MARTXAN

**Urteko lehen sei hilabeteak soilik igaro badira ere, Udalak, kudeaketa eraginkor eta jasangarriaren haritik, aurrekontuetan jasotako hainbat proiektu gauzatzea edo abian jartzea lortu du. Horiek guztiek helburu izan dute herritarrei eskainitako zerbitzuak hobetzea eta herritarren eskari eta beharrei erantzutea.**

**Bide horretatik, pertsonen ongizatea bermatu eta hobetzea, tokiko kultura eta nortasuna sustatzea eta herritarrei egokitutako herria eraikitzea lehenetsi ditu lan ardatz modura Udalak.**

## PERTSONEN ONGIZATEA *BIENESTAR DE LAS PERSONAS*

**Pertsonen ongizatea hobetzeko helburuarekin aurrera eramandako ekimenak**
*Actuaciones llevadas a cabo para mejorar el bienestar de las personas*

**Haur jolastokien hobekuntza**

*Renovación y mejora de parques infantiles*







**Berdintasun teknikariaren kontratazioa**

*Contratación de la nueva técnico de Igualdad*

BERDIN TASUNA Lezon

**Adineko pertsonen kirol praktika sustatzeko makinak erosi ditu Udalak**

*Compra de máquinas para la práctica deportiva de personas mayores*



**Egokitze lanak liburutegiko biltegian, haurrek ipuin-kontaketa saioetarako eremu egokia izan dezaten**

*Acondicionamiento del almacén de la biblioteca para sesiones de cuenta cuentos*



## KULTURA ETA NORTASUNA *CULTURA E IDENTIDAD*

**Bertako kultura eta kultur jarduerak sustatzeko eta gure nortasuna babesteko eta indartzeko helburuarekin aurrera eramandako ekimenak**
*Actuaciones realizadas para promover la cultura y las actividades culturales en Lezo, en beneficio de la identidad local*



**Aldagela berriak Gezalan**

*Construcción de camerinos en Gezala*



**Kultur ekipamenduetarako lokal berria**
*Compra de un local para equipamiento cultural*




**Udalekuetan haur guztien parte hartzea bermatu** *Garantizar la participación de todas y todos los niños en las colonias*

## LA MAYORÍA DE LOS PROYECTOS RECOGIDOS EN LOS PRESUPUESTOS EN MARCHA

***Los presupuestos para este año 2017 recogen múltiples proyectos y actuaciones que persiguen mejorar los servicios prestados a la ciudadanía y responder a sus verdaderas necesidades.***

***Gracias a una gestión sostenible y eficiente el Ayuntamiento ha logrado realizar o poner en marcha en estos primeros 6 meses muchos de los proyectos recogidos en el proyecto de presupuestos.***

## HERRITARREI EGOKITUTAKO HERRIA *MUNICIPIO ADECUADO A LAS PERSONAS*

**Lezo herri atseginagoa, irisgarriagoa, jasangarriagoa eta seguruagoa bihurtzeko, beharrezkoak dituen azpiegiturekin, aurrera eramandako ekimenak**
*Actuaciones para hacer de Lezo un municipio más amable, accesible, seguro y sostenible, con las necesarias infraestructuras*



### *ASCENSOR EN ALTAMIRA Y MEJORA DEL ACCESO AL POLIDEPORTIVO*

*El Ayuntamiento ya ha elaborado el proyecto del ascensor que se ubicará en Altamira. Asimismo, y con el mismo objetivo de mejorar la accesibilidad, se construirá un nuevo paso peatonal que unirá el polideportivo con las piscinas y el barrio de Altamira. El paso peatonal se construirá previsiblemente en los meses de verano.*



### HERRI ESKOLAKO JOLASTOKIA ESTALTZEKO PROIEKTUA

Laster esleituko ditu obrak Udalak beraz, haur eta irakasleek Eskola garaia amaitzean hasiko dira jolastokia estaltzeko obrak.

Estaldura berriari esker, egun euritsuetan eta eskolaz kanpoko orduetan haur, gazte zein herriko taldeek non jolastu izango dute.




### *SISTEMA MEDIANTE CONTENEDORES PARA LA RECOGIDA SELECTIVA*

*Ya queda menos para la implantación del sistema mediante contenedores. Este sistema más cómodo, limpio, y sostenible económicamente, permitirá a la población lezoarra depositar cada día sus residuos en el correspondiente contenedor. Ello facilitará la labor de reciclaje y permitirá mejorar los datos de recogida selectiva. El sistema piloto ya está en marcha en Altamira y los resultados de recogida selectiva, también con el nuevo sistema implantado, han superado la tasa de reciclaje del 80%.*



### *MEJORAS EN EL ALUMBRADO*

### *MEJORAS EN LA RED DE SANEAMIENTO*





### *PASOS DE CEBRA EN RELIEVE PARA MEJORAR LA SEGURIDAD DE LOS VIANDANTES*

### *PANELES INFORMATIVOS PARA MANTENEDER LIMPIAS NUESTRAS CALLES*



## EAJ-PNV

EAJ-PNVk bi urte daramatza jada Udalaren gidaritzan; bi urte oparo herritarren eta herriaren alde lanean eman ditugunak.

Eguneroko lanari esker hitz emandako hainbat proiektu eta egitasmo jarri ditugu martxan, guztiak herritarren beharrei eta eskariei erantzuteko helburuarekin: hondakin bilketarako sistema berria, igogailuak ezartzeko irisgarritasun planaren berrikuspena, Aiton Borda zaharretxearen berritzea, herria txukun mantentzeko adierazpen panelen ezarpena… Elkarlanaren haritik ere Altamirako biribilguneko arrisku arazoari irtenbidea ematea lortu dugu, hainbat urte eta gero, Foru Aldundiaren laguntzarekin, eta aurten hasitako dira, baita ere, Lezo-Donibane arteko bidegorriko lanak.

Oparoak beraz, lehen bi urteak; lan egiteko aurkeztu ginen eta gogor lan egiten jarraituko dugu datozen urteetan ere, betiere, herriaren eta herritarren alde.

*En estos dos primeros años de legislatura hemos logrado poner en marcha muchos de los proyectos que recogimos en nuestro programa: cambio de sistema de recogida en respuesta al deseo de la mayoría de la población; proyectos para la instalación de ascensores; actuaciones para promover un urbanismo más amable, accesible y seguro y en colaboración con la Diputación hemos dado por fin solución al problema de la rotonda de Altamira tras años de espera. Hacer que Lezo avance y mejore, en beneficio del conjunto de la ciudadanía, ha sido nuestro principal cometido y lo seguirá siendo cada día.*

## EH Bildu

Azken asteotan jakin dugunez, EAJk Espainiako aurrekontuak babestu ditu, PPri urtebeterako oxigenoa emanaz. Ustelkeria kasuengatik behin eta berriro epaitegietara joan behar dutenek, arnasgune bat dute EAJri esker. Operación Lezo delakoak, hamarnaka atxilotu ekarri ditu, ehundaka milloi euro lapurtzeagatik. Zerikusirik ba al du ordea Operación Lezok, gure herri kuttunarekin? Antza denez ez. Gure herriaren izena ordea, Madrileko aurrekontuen negoziazioetan izan da. Hauek negoziatzerakoan, PTPa egiteko asmoa berretsi dute bai EAJk eta baita PPk ere. Harrotasunez saldu nahi izan diguten akordioa, gure herriarentzako kaltegarria dela bistan da. Plataforma Intermodal Irun Pasaiak, Lezori eragiten dizkio kalteak. Lezoko landa eremua erabat txikitu nahi dute, 80 hektarea landa lur kendu nahi dizkigute, trenbide sare, errepideak jartzeko. Lezo herria, trenbidez inguratua utzi nahi dute irla bat balitz bezala. Baserriak, Gaintxurizketan dauden enpresak bertatik kendu nahi dizkigute interes izkutu batzuren mesedetan. Nor izango da sarraski honen onuradun? Hasteko, Irun. Gaur egun Irungo herrigunean dagoen tren estazioa kenduko lukete bertan etxebizita ugari egiteko, "pelotazo" urbanistikoa deritzona alegia. Plataforma hori egiteko ere, eraikuntzan dabiltzan enpresa multinazional haundial lehiatuko dira eta Lezo ikusi dugun moduan, politikari ustel asko, horrelako azpiegiturekin, aberastu egin da. Ez dugu onartzen gure herrian horrelako astakeria ekolojiko eta ekonomikoa egitea. Ez dugu onartuko Lezo operazioan bezala, Lezoko herria politikari ustelen menpe egotea.

## PSE-EE PSOE

*Estamos a mitad de legislatura. Los socialistas de Lezo somos clave en la gobernabilidad de su Ayuntamiento. A pesar de las diferencias, nuestro acuerdo con el PNV está dando sus frutos siendo los vecinos y vecinas de Lezo los grandes beneficiados del mismo. Nuestra representación municipal es humilde, pero nuestra ambición y ganas de trabajar, junto con la capacidad de llegar a entendimiento con el resto de partidos supone que el PSE está cumpliendo sus promesas electorales: Implantación del 5º contenedor, ascensor a Altamira y solución de su rotonda, bidegorri a Donibane, contratación de una técnico de igualdad, plan de empleo ejemplar en Gipuzkoa, ayudas al comercio y al alquiler de vivienda para los jóvenes, bonificaciones en los impuestos a los que menos tienen, portal de transparencia, instalaciones deportivas para niños y mayores… Ya son muchos los lezoarras que a título particular y colectivo están reconociendo y valorando positivamente nuestra labor y actitud en la solución de sus demandas. Continuaremos. En estos 2 próximos años seguiremos trabajando para mejorar la calidad de vida de los vecin@s: más y mejor limpieza viaria, participación ciudadana y apoyo a los que peor lo están pasando estarán entre nuestros objetivos. La mejor forma de predecir el futuro de Lezo es construyéndolo entre todos en base al acuerdo y a una actitud responsable y proactiva. Allí se encuentra el PSE y su grupo municipal.*

*Contacto: pse-ee@lezo.eus.*

Anima zaitez!

# LEZON KULTURAREN ALDE

**El Ayuntamiento de Lezo, en su apuesta por impulsar la cultura y la actividad cultural en el municipio, construirá este verano unos camerinos nuevos junto al Auditorio Gezala para que los grupos que vayan a ofrecer sus actuaciones en Lezo tengan un lugar apropiado para cambiarse y preparase antes de su función.**



Kulturaren aldeko apustuan, eta herriko talde ezberdinen beharrei erantzuteko helburuarekin, kultur ekipamenduetarako lokala erosi eta Gezalako Auditorioan aldagelak eraikiko ditu Udalak.

Bertako zein kanpoko hainbat eta hainbat taldek beren ikuskizun eta emanaldiak eskaintzen dituzte Gezalako Auditorian, ez baita makala izaten Lezoko kultur agenda. Edonola ere, taldeek ez dute eszenatokira igo aurretik aldatzeko eta lasai egoteko espazio egokirik izaten eta beraz, taldeen beharrei hobeto erantzuteko eta beren baldintzak hobetzeko helburuarekin eraikiko da udan kultur azpiegitura berria. Zehazki Gezala auditoriaren ondoan, Herri Eskola aldera ezarriko dira aldagelak

Honenbestez, udazkeneko kultur egitaraua ekintza mordoarekin eta bereziki, azpiegitura berriekin, helduko da Lezora.







# KULTUR EKIPAMENDUETARAKO LOKALA



Berriki Udalak, kultur ekipamenduetarako lokala erosi du herriko taldeen eskari eta beharrei erantzun eta beren arteko sinergiak eta hartu-emana sustatzeko.

Lokal berriarekin, arte eszenikoarekin lotura duten herriko talde ezberdinek, dantza eta antzerki taldeek esaterako, materialak uzteko eta entseguak egiteko eremu egokia izango dute.

Udalak tokiko kultur taldeak babestu eta sustatu nahi ditu izugarrizko garrantzia eta lotura dutelako herriaren nortasun, bizitasun eta kultur eskaintzarekin. Izan ere, herriko kultur taldeak ezinbestekoak dira, haiei esker hainbat eta hainbat emanaldiz gozatu ahal izaten dutelako herritarrek urtean zehar eta funtsezkoak direlako herriko jaien prestakuntzan ere.

Hori horrela izanik, eta haien lana aitortze eta babeste aldera erosi du Udalak lokal berria. Lokala kale nagusian kokatuta dago udal liburutegiaren parean eta horrela kaleari bizia eman nahi zaio, eremua herriko kultur gune bilakatuz.

Lokalaren erabiltzaile izango diren taldeak elkarrizketatu ditugu beren iritziak jasotzeko:

1. Nola hartu duzue udalaren erabakia?
2. Zein abantaila ekarriko dizkio lokal berriak zuen taldeari?
3. Taldeen arteko sinergiak sustatzeko aukerarik ikusten duzue?
4. Kulturaren aldeko apustuan ere, udan Gezalan aldagelak eraikiko dira, zer iruditzen?

## MURIXKA DANTZA TALDEA

1. Guk talde bezala poz handia hartu genuen. Azkenean, denbora asko daramagu egoera onean ez dagoen lokal batean entseguak egiten eta albistea eman zigutenean sorpresa hartu genuen, ez baikenuen espero . Gure taldearentzat hobekuntza nabaria izango da aurrera jarraitzeko eta hobeto entseatu ahal izateko, gauza berriak lortzeko eta bereziki, osasun aldetik egoera hobean lan egin ahal izateko.

2. Bereziki entseatzeko leku hobeago bat. Azken finean gure lokalean hezetasun arazo handia dugu eta guri pertsonalki osasun aldetik ekarriko digu hobekuntzarik nagusiena. %75eko hezetasuna duen lokal batean entseatzen aritzen gara eta dantzan ari garenean asko nabaritzen da hezetasun hori.

3. Bai. Guk lehenagotik desfile taldearekin bagenuen elkarlana eta betitik aritu gara elkarlanean Murixka dantza taldeak parte hartzen duelako desfile egunean Iñude eta Artzaiez jantzita. Beraz, haiekin harremana badugu jada. Aldiz, Orratx antzerki taldearekin ez genuen harremanik eta posible litzateke etorkizun batean elkarrekin gauzak egitea eta elkarlan hori gauzatzea.

4. Azkenean, lokalen hobekuntzak direnak herriarentzat eta guztiontzat laguntza batzuk dira eta oso ideia pozgarriak dira guretzat.

## DESFILEEN ALDEKO TALDEA

1. *Nosotros como grupo muy bien, si teníamos una idea de que el Ayuntamiento estaba buscando algo, pero no pensábamos que nos iban a dar un local y nos hemos alegrado un montón y estamos super contentos. Nosotros desarrollamos una actividad que antiguamente la llevaba a cabo la iglesia con la catequesis, luego lo llevaba Murixka, pero es una actividad que no tiene local, que no tiene ayudas económicas… no tiene nada, sólo recibimos la subvención de las fiestas. Pero nuestro grupo necesita un local para guardar el material y poder trabajar y actualmente, estamos pagando más de 1000 euros al año por un local para poder tener las cosas guardadas, en condiciones, sin humedades. Creemos que somos el único grupo en estas condiciones y son unas condiciones en las que ya no podíamos seguir y por ello, hasta nos habíamos planteado dejarlo.*

2. *Creemos que va a ser una mejora para que podamos hacer más cosas, cosas nuevas para el pueblo, sin tener que estar pidiendo, un lugar de trabajo donde podamos trabajar y mejorar, porque al final no podemos avanzar porque la situación no nos lo permite. El nuevo local nos va a permitir tener un espacio en condiciones para que las personas que participan en el desfile puedan probarse los trajes y también nos ayudará a darnos a conocer. Con este nuevo espacio vamos a ganar todos. Tendremos mejores condiciones y todo lo que sea mejora para el pueblo y las personas del pueblo, bienvenido será.*

*Recientemente el Ayuntamiento ha adquirido un nuevo local para grupos locales de danza y teatro, entre otros, con el objeto de impulsar la actividad de los grupos, crear sinergias entre los mismos y responder a sus necesidades y demandas.*

*Este nuevo espacio en el que podrán ensayar y recoger su material está ubicado en Kale Nagusia frente a la biblioteca municipal, por tanto, el Ayuntamiento también pretende revitalizar la calle concentrando en esta zona la actividad cultural del municipio.*



*Hemos entrevistado a los grupos culturales que harán uso de este local para conocer su opinión:*

1. *¿Cómo habeis recibido la noticia?*
2. *¿En qué os va a beneficiar este nuevo local?*
3. *¿Veis alguna posibilidad de crear sinergias entre los grupos?*
4. *Dentro de la apuesta por la cultura, en verano se construirán unos camerinos en Gezala, ¿qué os parece?*

3. *Es verdad que nos va a ayudar a conocernos entre los grupos. Por ejemplo, nosotros no conocíamos el grupo Orratx, Murixka sí, obviamente, porque ha organizado el desfile durante muchos años hasta que nosotros cogimos el relevo y participan, además, como Iñudes y Artzaias en el desfile. Pero en conjunto siempre se trabaja más bonito y mejor, por ejemplo, el teatro puede ser una variante del desfile o nosotros les podemos dejar material que puedan necesitar. Todo es proponer y ayudar y apoyarnos mutuamente para lograr que la fiesta sea más bonita.*
4. *Nos parece una muy buena idea, porque se mejorarán las condiciones y la comodidad de los que vienen a ver y vienen a trabajar, en beneficio de todas y todos.*

## ORRATX ANTZERKI TALDEA

1. Egia esan primeran ez genuelako espero. Bat-batean horrelako proiektu bat zegoela jakinarazi ziguten eta oso ondo hartu genuen; momentu honetan gure gauzak Orratx elkartean baititugu eta gure entseguak Gezalan egiten ditugu, astean bitan helduekin eta astean behin txikiekin. Txikiekin ostiraletan egiten ditugu eta askotan kultur programazioarekin bat egin eta lekuz aldatu behar izaten dugu. Askotan gainera, ez da beste lekurik izaten eta eten egin behar izaten dugu gure jarduna, eta beraz, konplikatu samarra da hori guztia aurrera eramatea. Momentu honetan, Gezalak izugarrizko programazioa du, Euskal Herrian lokal gutxik izango dute Gezalak adina jarduera, izugarria da, eta guretzat hori oztopo izaten da batzuetan. Beraz, guretzat oso ondo dago horrelako lokal bat izatea, haurrek erreferentzia leku bat izaten dezaten, hemen eta han ibili behar ez izateko, haurrentzat kaosa izaten baita. Gainera Gezalak ez du lekurik gauzak gordetzeko, beraz materialekin ere bueltaka ibiltzen gara beraz, guretzat primerakoa da lokal berria.
2. Erreferentziazko gune bat izatea eta kultur programazioarekin ez oztopo egitea .
3. Espazio batek lotura sortzen du. Taldeak leku ezberdinetan egoteak sakabanatu egiten gaitu, ondorioz, ez dugu elkar ezagutzen eta ez dakigu bakoitzak bere egunerokotasunean zer egiten duen. Espazio berriak lotu egingo gaitu eta elkarrekin gauzak egingo ditugula uste dugu.
4. Primeran iruditzen zaigu, bertan antzerkiak egiten ditugunean ordu erdi lehenago han izaten gara geldi-geldi ez dagoelako egoteko lekurik. Norbaitek komunera joan nahi badu, publikoa sartzen denean, ezinezkoa da. Oso inkomodoa da, aldagelarik ere ez dago eta eskolako liburutegia erabili behar izaten dugu aldatzeko eta talde profesionalek ere baldintza minimo batzuk behar dituztela ere uste dugu. Beraz, aldagelen proiektuak asko lagunduko duela uste dugu.

# TIPI-TOPA







## UDAKO KIROL JARDUERA ESKAINTZA *OFERTA DEPORTIVA PARA EL VERANO*

## LEZO

| EKINTZA | ADINA | TXANDAK | ORDUTEGIA |
|---|---|---|---|
| BOLEIBOLA | 10-16 | C/D/E/F/G | 11:30-13:00 |
| TOP KIROLA | 8-16 | C-D/E-F | 9:30-12:30 |
| IGERIKETA (txikian) | 4-8 | B-C/D-E<br>(45' saioa) | 16:00-18:15<br>(45' saioa) |
| IGERIKETA (handian) | 4-8 | B-C/D-E<br>(45' saioa) | 16:00-18:15<br>(45' saioa) |
| IGERIKETA (handian) | 4-8 | F-G<br>(45' saioa) | 16:00-16:45<br>(45' saioa) |
| IGERIKETA | 9 -15 | D-E | 16:45-17:30 |
| IGERIKETA | 9 -15 | F-G | 16:00-16:45 |
| ZIRKOA PARKEETAN | 6 - 12 | C/D/E/F/G | 10:00-11:30 |
| KANPUSA:<br>GIMNASIA ERRITMIKOA | 8 - 12 | C | 10:00 - 13:00 |
| DENOK DANTZARA | 6 - 12 | D/E/F | 10:00 - 13:00 |
| AKROBAZIKO GIMNASIA | 6 - 12 | C/D/E/F/G | 10:00-11:30 |
| ESKALADA | 10-12<br>13-16 | D-E | 10:00-11:30<br>11:30-13:00 |
| URA:osasun/ongizate | 16 urte+ | D-E-F-G | 9:00-9:45 |
| IGERIKETA | 16 urte+ | D-E-F-G | 9:00-9:45 |
| IGERIKETA | 16 urte+ | D-E-F-G | 9:45-10:00<br>20:00-20:45 |
| AQUAFIT | 16 urte+ | D-E-F-G | 9:45-10:30 |
| AQUALATINO | 16 urte+ | D-E-F-G | 9:45-10:45 |
| TONO-ZIKLO | 16 urte+ | D-E-F-G | 9:30-10:15<br>15:00-15:45 |
| ZUMBA | 16 urte+ | D-E-F-G | 19:00-19:45 |
| ZIKLO | 16 urte+ | D-E-F-G | 19:00-19:45 |
| NORDIC WALKING | 16 urte+ | D-E-F-G | 9:30 - 10: 30<br>19:00 - 20:00 |

## TXANDAK

▶▶▶



**EKAINA**/JUNIO

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | 1 | 2 | 3 | 4 |
| | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 |
| A | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 |
| B | 19 | 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | 25 |
| C | 26 | 27 | 28 | 29 | 30 | 1 | 2 |

**UZTAILA**/JULIO

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 26 | 27 | 28 | 29 | 30 | 1 | 2 |
| D | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 |
| E | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 |
| F | 17 | 18 | 19 | 20 | 21 | 22 | 23 |
| G | 24 | 25 | 26 | 27 | 28 | 29 | 30 |
| | 31 | | | | | | |

**ABUZTUA**/AGOSTO

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| H | 31 | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 |
| I | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 |
| J | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | 19 | 20 |
| K | 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | 26 | 27 |
| | 28 | 29 | 30 | 31 | | | |

**IRAILA**/SEPTIEMBRE

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| L | 28 | 29 | 30 | 31 | 1 | 2 | 3 |
| | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 |
| | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |
| | 18 | 19 | 20 | 21 | 22 | 23 | 24 |
| | 25 | 26 | 27 | 28 | 29 | 30 | |

## UDAN JOSTATZERA 2017

### LEZOKO UDALEKU IREKIA *COLONIAS DE VERANO*

**Uztailaren 3tik 28ra bitartean astelehenetik ostiralera, 9:30etik 13:30ra.**
**Jolasak, dantzak, kantak, antzerkiak eta beste hainbat ekintza egiteko aukera, giro euskaldun eta atseginean!**

*Entre el 3 y el 28 de julio de lunes a viernes de 9:30 a 13:30.*
*¡Juegos, excursiones, fiestas, bailes y muchas otras actividades, en un ambiente euskaldun y agradable!*

@LezokoUdala @LezoUdala

Gure aplikazioarekin Lezoko informazio guztia zure esku!

Descargate la app para estar al día

Download on the App Store    Google play

Lezoko Udala | Gurutze Santuaren Plaza,1 - 20100 Lezo |943 524650 |info@lezo.eus